Grammar Appendix

UNIT 1 Adventure Travel

Present Simple

FORM

Affirmative	Negative	Interrogative
I / You **work** He / She / It **works** We / You / They **work**	I / You **do not (don't) work** He / She / It **does not (doesn't) work** We / You / They **do not (don't) work**	**Do** I / you **work**? **Does** he / she / it **work**? **Do** we / you / they **work**?

Uses	Examples	Adverbs of frequency / Time expressions
A regular habit or routine	*My sister works as a tour guide.*	always, usually, generally, regularly, occasionally, frequently, often, sometimes, rarely, seldom, never at 1 o'clock, at night, in the morning, on Fridays, every week, once a month, how often ...?
A general truth or scientific fact	*Paris is a common destination.*	
Stative verbs	*I think he is an explorer.*	

Egitura

Baiezkoa: aditzoinaren forma du (hots, **to** gabeko infinitiboa), 3. pertsona singularrean izan ezik, hori **-s** edo **-es** batez bukatzen baita.

3. pertsona singularra zuzen osatzeko, aditzaren bukaerak zehaztutako ortografia-arauak jarraitu behar dira:

- **-O, -ss, -sh, -ch** edo **-x** batez bukatzen direnek **-es** hartzen dute: *do - do**es**, miss - miss**es**, wish - wish**es**, touch - touch**es**, fix - fix**es***.
- **Bokala + y** bukaera dutenek **-s** hartzen dute: *say - say**s***.
- **Kontsonantea + y** bukaera dutenek **y** hori **i** batez ordeztuko dute, eta gero **-es** hartuko dute: *try - tri**es***.

Ezezkoa: subjektua + **do not** (**don't**) edo, 3. pertsona singularra denean, **does not** (**doesn't**) + aditza oinarrizko forman jarriz osatzen da.

Galderazkoa: do ala **does** + subjektua + aditzaren oinarrizko forma.

Gogoan izan **have got**, **to be** eta aditz modalek ez dutela ezezkoetan eta galderetan **do** / **does** laguntzailearen beharrik.

Erabilerak

- Ohikoak edo egunerokoak diren ekintzez aritzeko.
- Gertaera orokorrak eta egia zientifikoak adierazteko.
- *Stative verbs* deiturikoekin (ikus hurrengo orrialdea).

+ Ordutegi eta egitarauak adierazteko.

The plane leaves at 4 o'clock.
(Hegazkina 4etan ateratzen da.)

Maiztasun-adberbioak aditz nagusiaren aurrean kokatzen dira, baina aditza to be bada, atzean jartzen dira.

Laura never travels alone.
(Laurak ez du inoiz bakarrik bidaiatzen.)

The tourist office is always open.
(Turisten bulegoa zabalik dago beti.)

Kontrara, maiztasun-esamoldeak beti esaldiaren hasieran edo bukaeran jartzen dira.

Peter goes to the museum every week.
(Peter astero joaten da museora.)

How often ...? galdetzaileaz gauza bat zer maiztasunekin egiten den galdetuko dugu.

How often do you go to the United States?
(Zenbatean behin joaten zara Estatu Batuetara?)

+ Tauletan agertzen direnez gaineko erabilerak adierazten ditu.

Present Continuous

FORM

Affirmative	Negative	Interrogative
I **am singing** You **are singing** He / She / It **is singing** We / You / They **are singing**	I **am (I'm) not singing** You **are not (aren't) singing** He / She / It **is not (isn't) singing** We / You / They **are not (aren't) singing**	**Am** I **singing**? **Are** you **singing**? **Is** he / she / it **singing**? **Are** we / you / they **singing**?

Uses	Examples	Time expressions
An action which is happening now	*Alex is travelling north now.*	now, right now, at the moment
A temporary action	*They are learning to ski this year.*	this year, at present, today, these days, this month
A definite plan for the near future	*Bob is meeting Mary tonight.*	this evening, tonight, tomorrow, next Friday / week / year

Egitura

Baiezkoa: subjektua + **am** / **is** / **are** + aditz nagusiari -**ing** bukaera gehituta osatzen da, eta -**ing** bukaera gehitzeko, aditzaren amaiera izan behar dugu kontuan:

- Aditza -**e** mutuaz bukatzen bada, **e** galdu egiten du: *ride - rid**ing***.
- -**Y** batez bukatzen bada, ordea, hori mantendu egiten du: *pay - pa**ying***.
- -**Ie** bukaera badu, bi hizki horiek **y** batez ordeztuko dira: *die - d**ying***.
- Silaba bakarreko aditza bada, eta **bokala+ kontsonantea** amaieran, azken kontsonantea bikoizten da, **w** eta **x** kasuetan salbu: *run - ru**nning***, baina *show - show**ing***.
- Bi silabaduna bada, lehenengoan badu azentua, eta -**l** edo -**p** batez amaitzen bada, kontsonante hori bikoizten da: *travel - trave**lling***.
- Bi silabaduna bada, bigarrengoan badu azentua, eta **bokala + kontsonantea** baditu amaieran, kontsonante hori bikoizten da: *refer - refe**rring***.

Ezezkoa: subjektua + **am** / **is** / **are** + **not** (edo **n't**) + -**ing** bukaera duen aditz nagusia.

Galderazkoa: am / **is** / **are** + subjektua + **ing** amaiera daraman aditza.

Erabilerak

- Hitz egiteko unean zer gertatzen ari den azaltzeko.
- Orainaldi zabalago batean gertatzen ari diren ekintza luzeak adierazteko.
- Etorkizun hurbilean ziurtasun osoz egingo duguna adierazteko, aldez aurretik finkatua baitugu.

+ Always adberbioarekin, kexua adierazteko.

He is always telling me what to do.
(Zer egin behar dudan esaten ari zait beti.)

Stative Verbs

Ekintzak baino egoerak adierazten dituzte eta *Present Simple* aldian erabiltzen dira. Ondorengo ezaugarriekin dute lotura:

- emozio eta sentimenduekin (**dislike**, **enjoy**, **hate**, **hope**, **like**, **love**, **prefer**, **want**),
- pentsamenduarekin eta iritziarekin (**believe**, **forget**, **guess**, **know, remember**, **think**, **understand**),
- pertzepzio eta zentzumenekin (**feel**, **hear**, **see**, **smell**, **sound**, **taste**, **touch**),
- prezio eta neurriekin (**cost**, **measure**, **weigh**) eta
- jabetzarekin (**belong**, **have**, **own**).

Batzuek egoera eta ekintza adieraz ditzakete. Horregatik, *Present Simple* nahiz *Present Continuous* aldiarekin erabil daitezke.

Donna thinks the cruise is a good idea.
(Donnak kruzeroa ideia ona dela uste du.) [egoera]

They are thinking about going to China in the summer.
(Udan Txinara joatea pentsatzen dute.) [ekintza]

See aditzak *Present Continuous* aldian, bizkitartean, aldez aurretik finkaturiko etorkizuneko ekintza adierazten du.

My parents are seeing my teacher this afternoon.
(Nire gurasoek irakaslea ikusiko dute gaur arratsaldean.)
[hitzartu dute jada]

Phrasal Verbs

Aditz horiek partikula bat edo gehiago izaten dute ondotik (preposizioak, adberbioak edo bien konbinaketa), eta elkarrekin esanahi berria hartzen dute, bakarka zuten esanahia ez den beste bat.

Iragankorrak edo iragangaitzak izan daitezke.

We need to set off very early tomorrow.
(Oso goiz abiatu behar gara bihar.)

We don't want to run out of medicines in the jungle.
(Ez dugu botikarik gabe gelditu nahi oihanean.)

Iragankor gehienen kasuan, osagai zuzena jar daiteke aditzaren eta partikularen artean. Osagai hori izena bada, jar daiteke tartean edo atzean; baina, izenordaina bada, derrigorrez tartean jarri behar da.

I'm going to pick up my sister at the airport.
(Ahizpa jasotzera noa aireportura.)

I'm going to pick my sister up at the airport.
I'm going to pick her up at the airport.

Nolanahi den, iragankor batzuk, iragangaitz guztiak eta bi partikulez osatuak direnak banaezinak dira.

He is looking for his keys / them.
(Giltzen / beraien bila dabil.)

Aditz batzuek partikula bat baino gehiago onartzen dituztenez, *phrasal verbs* desberdinak osatzen dituzte.

get across (ulertarazi)
get by (moldatu, konpondu [hizkuntza batekin])
get through (komunikatu, hitz egitea lortu)

Gainera, *phrasal verbs* askok esanahi bat baino gehiago dituzte:

get into (sartu; zaletu)
turn up (leku batean azaldu, agertu; (bolumena) igo)
turn down (uko egin, baztertu; (bolumena) jaitsi)
switch off (itzali (telefonoa); (burua) deskonektatu)

Ikus 28. orrialdean duzun *phrasal verbs* zerrenda, adibide gehiago aztertu ahal izateko.

Past Simple		
FORM		
Affirmative	Negative	Interrogative
I / You **finished** He / She / It **finished** We / You / They **finished**	I / You **did not (didn't) finish** He / She / It **did not (didn't) finish** We / You / They **did not (didn't) finish**	**Did** I / you **finish**? **Did** he / she / it **finish**? **Did** we / you / they **finish**?
Uses	Examples	Time expressions
A completed action in the past	*I visited Brussels last year.*	yesterday, last week / year, two days ago, in 2007, in the 1980s, in the 18th century, when, then
A series of completed actions in the past	*We opened the door and the guests entered the room.*	

Egitura

Baiezkoa: aditz erregularrekin aditzaren oinarrizko formari **-ed** amaiera gehituta osatzen dugu, baina ondorengo ortografia-arauak jarraituz:

- Aditza **-e** mutuaz amaitzen bada, **-d** gehituko dugu soilik: *prove - prov**ed***.
- **Bokala + y** bukaera dutenek **-ed** hartzen dute: *stay - stay**ed***.
- **Kontsonantea + y** amaiera dutenek **y** hori **i** batez ordeztuko dute **-ed** gehitu aurretik: *carry - carr**ied***.
- Silaba bakarrekoek eta amaieran **bokala + kontsonantea** dutenek, kontsonantea bikoizten dute, **w** eta **x** kontsonanteak izan ezik: *stop - sto**pped***, baina *fix - fi**xed***.
- Bi silabadunak badira, azentua aurrenekoan daramatenak, eta **-l** edo **-p** amaiera dutenak azken kontsonante hori bikoiztuko dute: *cancel - cance**lled***.
- Bi silabadunak badira, azentua azkenekoan daramatenak, eta **bokala + kontsonantea** amaieran, azken kontsonantea bikoizten dute: *prefer - prefe**rred***.

Aditz irregularrek, 30. orrialdeko zerrendan ikus dezakezun bezala, ez dituzte aldaketa horiek jasaten.

Ezezkoa: subjektua + **did not** (edo **didn't**) + aditzaren oinarrizko formarekin osatzen da.

Galderazkoa: **did** + subjektua + aditz nagusia.

Erabilerak

- Lehenaldiko une zehatz batean gertatutako ekintzez hitz egiteko.
- Iraganeko ondoz ondoko ekintzak adierazteko.

+ Ekintza luze bat abian zegoen bitartean gertatu zen ekintza laburra adierazteko (laburrak **when** juntagailua darama hasieran).

  Jane was returning home when her car broke down.
  (Jane etxera zihoala, autoa matxuratu zitzaion.)

+ Iraganean gauzak nola ziren kontatzeko edo deskribatzeko.

  In the 19th century, London was a dangerous city.
  (XIX. mendean Londres hiri arriskutsua zen).

Ago denborazko esamoldea, adierazitako denbora-unearen atzean jartzen da, eta "orain dela" esan nahi du.

She left two hours ago.
(Orain dela bi ordu alde egin du.)

Past Continuous

FORM

Affirmative	Negative	Interrogative
I **was writing**	I **was not (wasn't) writing**	**Was** I **writing**?
You **were writing**	You **were not (weren't) writing**	**Were** you **writing**?
He / She / It **was writing**	He / She / It **was not (wasn't) writing**	**Was** he / she / it **writing**?
We / You / They **were writing**	We / You / They **were not (weren't) writing**	**Were** we / you / they **writing**?

Uses	Examples	Time expressions
An incomplete action in progress at a specific time in the past	*At 9 o'clock last night, Eric was visiting his sister.*	last night / week / year, at 4 o'clock
An incomplete action interrupted by another action	*They were skiing when their parents arrived at the hotel.*	when, while, as
Two incomplete actions in progress at the same time in the past	*The plane was taking off as I was driving to the airport.*	

Egitura

Baiezkoa: subjektua + **was** / **were** + aditz nagusiari **-ing** amaiera gehituta osatzen da.

Ezezkoa: subjektua + **was** / **were** + **not** (edo **n't**) + aditz nagusia **-ing** amaiera duela.

Galderazkoa: was / **were** + subjektua + aditz nagusia **-ing** amaieraduna.

Erabilerak

- Iraganeko une zehatz batean gertatzen ari zena adierazteko.
- Beste gauza labur bat jazo zenean, ekintza luzeren bat gertatzen ari zela adierazteko. Luzeak **while** edo **as** darama hasieran, eta motzak **when**.
- Iraganean aldi berean gertatzen ari ziren ekintzak adierazteko. Kasu horretan **while** edo **as** juntagailuen bitartez lotuta doaz.

+ **Always** adberbioarekin iraganeko ekintza bat gogaikarria zaigula adierazteko, monotonoa eta errepikakorra delako.

  He was always talking about his trips.
  (Beti bere bidaiez hitz egiten jarduten zuen.)

Gerundioa eta infinitiboa

Gerundioa

Ingelesez **-ing** bukaera duen adizkia da, eta izenaren funtzioa betetzen duena ondorengo kasuetan:

- Zenbait aditzen osagai zuzen gisa: **consider**, **continue**, **deny**, **detest**, **dislike**, **enjoy**, **finish**, **hate**, **like**, **love**, **miss**, **prefer**, **recommend**, **suggest**, etab.

  I like doing extreme sports.
  (Muturreko kirolak egitea gustuko dut.)

- Preposizioen ondotik.

  Lucy doesn't like his style of playing.
  (Lucyri ez zaio gustatzen haren jokatzeko estiloa.)

- Aditz-forma batzuen ondotik: **be used to** / **get used to**, **can't help**, **can't stand**, **don't mind** / **wouldn't mind**, **feel like**, **it's no use**, **look foward to**, etab.

  She doesn't mind travelling alone.
  (Ez zaio axola bakarrik bidaiatzea.)

- Perpauseko subjektu bezala, ekintzei buruz era orokorrean ari garenean.

  Walking is a very healthy activity.
  (Oinez ibiltzea ekintza oso osasuntsua da.)

Infinitiboa

Aurretik **to** daraman adizkia dugu. Honela erabiltzen da:

- Ondorengoak bezalako aditzen atzetik: **agree**, **appear**, **choose**, **decide**, **expect**, **hope**, **learn**, **plan**, **promise**, **refuse**, **seem**, **want**, **wish**, etab.

  He decided to become an explorer.
  (Esploratzailea izatea erabaki zuen.)

- Zenbait adjektibo eta adberbioren ondotik.

  She woke up early to go on a guided tour.
  (Goiz esnatu zen gidatutako bisitaldi batera joateko.)

- **Advise**, **help**, **invite**, **persuade**, **teach**, **tell** edo **warn** bezalako aditzen zeharkako osagarriaren ondotik.

  He invited me to join the expedition.
  (Espedizioko parte hartzaile izatera gonbidatu ninduen.)

Hala ere, pertzepzio-aditz batzuek (**hear**, **feel**, **see**, etab.), eta **make** nahiz **let** aditzek aditzoina (**to** gabeko infinitiboa) daramate ondotik.

I let my sister come with us.
(Gurekin etortzen utzi nion ahizpari.)

Gerundioa eta infinitiboa lagun duten aditzak

Aditz batzuen ondotik gerundioa nahiz infinitiboa jar daiteke, esanahia batere aldatzen ez delarik, adibidez, **begin**, **forbid**, **intend**, **propose** edo **start**:

They proposed to visit / visiting all the shops of the town.
(Herriko denda guztiak bisitatzea proposatu zuten.)

Beste aditz batzuek, berriz, gerundioa eta infinitiboa onartzen dituzte ondotik, baina, bata ala bestea erabili, esanahia aldatu egiten da zertxobait:

- **forget** + **gerundioa** ezezko esaldietan erabiltzen da, iraganean egindako zerbait ahaztea ezinezkoa dela adierazteko.

  He'll never forget meeting that explorer.
  (Inoiz ez du ahaztuko esploratzaile hori ezagutu zuela.)

  forget + **infinitiboa** zerbait egitea ahaztu zaigula adierazteko.

  He always forgets to buy a travel guide.
  (Beti ahazten zaio bidaia-gida erostea.)

- **remember** + **gerundioa** iraganean egindako zerbait gogoratzen dugula adierazteko.

  I remember giving them their tickets.
  (Gogoratzen naiz txartelak eman nizkiela.)

  remember + **infinitiboa** zerbait egin behar dela gogorarazteko.

  Remember to close the door before you go.
  (Gogoratu atea ixtea alde egin aurretik.)

- **stop** + **gerundioa** ohitura bat utzi dugula adierazteko.

  Bob stopped smoking last year.
  (Bobek erretzeari utzi zion iaz.)

  stop + **infinitiboa** beste gauza bat egiten hasteko, ekintza bat eten behar dela adierazteko.

  Can we stop to see the beach?
  (Geldi al gaitezke hondartza ikusteko?)

UNIT 2 To the Rescue

Present Perfect Simple			
FORM			
Affirmative	Negative	Interrogative	
I / You **have lived** He / She / It **has lived** We / You / They **have lived**	I / You **have not (haven't) lived** He / She / It **has not (hasn't) lived** We / You / They **have not (haven't) lived**	**Have** I / you **lived**? **Has** he / she / it **lived**? **Have** we / you / they **lived**?	
Uses		Examples	Time expressions
An action that began in the past and continues until the present		*I have been a pilot for ten years.*	never, ever, already, just, yet, recently, lately, how long ...?, for, since, in recent years
An action that took place at an undetermined time in the past, but is connected to the present		*John has joined a rescue team recently.*	

Egitura

Baiezkoa: subjektua + **have** / **has** + aditz nagusiaren partizipioarekin osatzen da.

Ezezkoa: subjektua + **have** / **has** + **not** (edo **n't**) + aditz nagusiaren partizipioa.

Galderazkoa: have / **has** + subjektua + aditz nagusiaren partizipioa.

Erabilerak

- Iraganean hasi eta gaur egun oraindik jarraipena duten ekintzez hitz egiteko. Horregatik, batzuetan aditz-denbora hori itzultzerakoan, orainaldia hautatzen da.
- Iraganekoak izan arren, gaur egun oraindik ondorioak agerian dituzten ekintzei buruz hitz egiteko.
- **+** Ekintza gertatu berria dela adierazteko. Kasu horretan **just** erabiltzen da aditz laguntzailearen eta partizipioaren artean.

  The emergency service boat has just arrived.
  (Larrialdi zerbitzuetarako itsasontzia oraintsu etorri da.)

Never, **ever**, **already** eta **just** aditz laguntzailearen (**have**) eta partizipioaren artean kokatzen dira; **yet,** aldiz, beti esaldiaren bukaeran.

The plane has already taken off.
(Hegazkina aireratu da jada.)

Have you checked the weather forecast for tomorrow yet?
(Biharko eguraldiaren iragarpena kontsultatu al duzu jada?)

Baiezkoetan **just**, **never** eta **already** erabiltzen dira; ezezkoetan **yet**; galderetan, berriz, **already**, **ever**, **yet** eta **just**.

I've never seen a tornado.
(Inoiz ez dut tornadorik ikusi.)

He hasn't hiked alone yet.
(Hura ez da oraindik txangoan bakarrik joan.)

Have you ever been trapped in a lift?
(Inoiz gelditu al zara igogailu batean harrapatuta?)

How long ...? erabiliz, ekintzaren iraupenaz galdetzen dugu. Alegia, ekintza hasi zenetik zenbat denbora pasa den, kontuan izanda ekintzak iraun egiten duela oraindik.

How long have you been a firefighter?
(Zenbat denbora da suhiltzailea zarela?)

For preposizioak ekintzak zenbat denbora iraun duen azaltzen du, eta since preposizioak ekintza hasi zeneko unea.

I have worked at the airport for two years / since 2009.
(Bi urte daramatzat aireportuan lanean / 2009az geroztik ari naiz aireportuan lanean.)

Past Simple / Present Perfect Simple

Past Simple aditz-denborak iraganeko une zehatz batean jazotakoa adierazten duen bitartean, *Present Perfect Simple* aldiak ekintza denbora-tarte batean kokatzen du.

I paid for the tickets to London, but I haven't collected them yet.
(Ordaindu nituen Londreserako txartelak, baina oraindik ez ditut jaso.)

Adjektiboak eratzeko atzizkiak

Atzizkiak hitzen erroei gehitzen dizkiegun bukaerak dira, horrela hitz berriak erdiesteko.

Ondorengoak izenei eta aditzei eransten zaizkien atzizkiak dira, adjektiboak lortzeko:

predict (aurresan)	*predict**able*** (aurresan daitekeena)
nation (nazio)	*nation**al*** (nazional)
consider (kontuan izan)	*consider**ate*** (zentzudun)
beauty (edertasun)	*beauti**ful*** (eder)
pain (min)	*pain**less*** (minik gabeko)
contempt (mespretxu)	*contempt**ible*** (mespretxugarri)
attract (erakarri)	*attract**ive*** (erakargarri)
danger (arrisku)	*danger**ous*** (arriskutsu)

Izen batzuekin goiko aurrizkietako bat baino gehiago erabil daitezke:

*care**ful*** – *care**less*** *harm**ful*** – *harm**less***

Beste batzuek, aldiz, bakarra onartzen dute:

*home**less*** – **home**ful*** **peace**less*** – *peace**ful***

Eta aditzetatik adjektiboak erdiesteko beste bi atzizki ditugu **-ed** eta **-ing**.

bore (aspertu) *bor**ed*** (aspertuta)
*bor**ing*** (aspergarri)

-ed bukaeradun adjektiboarekin deskribatuko dugu pertsona edo gauza batek ondorio zehatz bat sentitzen edo jasaten duela; **-ing** amaieradun adjektiboarekin, berriz, ondorio hori eragiten duen pertsona edo gauza.

Peter is boring so I'm bored when I go out with him.
(Peter aspergarria da, ondorioz, aspertu egiten naiz berarekin ateratzen naizenean.)

Past Perfect Simple		
FORM		
Affirmative	Negative	Interrogative
I / You **had arrived**	I / You **had not (hadn't) arrived**	**Had** I / you **arrived**?
He / She / It **had arrived**	He / She / It **had not (hadn't) arrived**	**Had** he / she / it **arrived**?
We / You / They **had arrived**	We / You / They **had not (hadn't) arrived**	**Had** we / you / they **arrived**?
Uses	Examples	Time expressions
A completed action which took place before another action in the past	*By the time he left the island, the tornado had already started.*	already, by the time, after, before, until, never, just

Egitura

Baiezkoa: subjektua + **had** + aditz nagusiaren partizipioarekin eratzen da.

Ezezkoa: subjektua + **had not** (edo **hadn't**) + aditz nagusiaren partizipioa.

Galderazkoa: had + subjektua + aditzaren partizipioa.

Erabilerak

- Ekintza bat beste ekintza baten aurretik burutu zela adierazteko. Azken hori *Past Simple* aditz-denboran erabiltzen da.

used to / would

Iraganean ohikoak ziren baina gaur egun gertatzen ez diren ekintzak deskribatzen dituzte. Horregatik, arrunta da esaldian maiztasun-adberbioak nahiz -esamoldeak agertzea.

Every night, Emma used to dream about becoming a policewoman.
(Gauero Emmak polizia izatearekin amets egiten zuen.)

When I was a child, we would often go to the country.
(Umea nintzela, mendira joaten ginen maiz.)

Used to halaber, iraganeko egoerei buruz hitz egiteko ere erabiltzen da, eta orduan ez dugu maiztasunezko "ohi" edo "-t(z)en" amaiera daramala itzuliko, lehenaldi soilaz baizik. Kasu honetan ezin da **would** erabili.

I used to live in this street. (Ni kale honetan bizi nintzen.)
* *I would live in this street.* [Ez da zuzena.]

Used to egiturak ez du orainaldiko formarik. Ezezko nahiz galderazko esaldietan **did** laguntzailea erabili beharra dugu, eta, orduan, **used** aditzak bukaerako "**d**" galtzen du.

Did your mother use to travel a lot when she was young?
(Zure amak asko bidaiatzen zuen gaztetan?)

UNIT 3 A Robotic World

Future Simple		
FORM		
Affirmative	Negative	Interrogative
I / You **will allow** He / She / It **will allow** We / You / They **will allow**	I / You **will not** (**won't**) **allow** He / She / It **will not** (**won't**) **allow** We / You / They **will not** (**won't**) **allow**	**Will** I / you **allow**? **Will** he / she / it **allow**? **Will** we / you / they **allow**?

Uses	Examples	Time expressions
A prediction	*Robots will be more developed in the future.*	this evening, in an hour, at 2 o'clock, later, tomorrow, next month / year, soon, in a few weeks, in the future, on 1st May
A timetable	*The science lesson will start at 2 o'clock.*	
A spontaneous decision	*My mobile phone is out of date. I will buy a new one.*	

Egitura

Baiezkoa: subjektua + **will** + aditz nagusiaren oinarrizko forma.

Ezezkoa: subjektua + **will not** (edo **won't**) + aditzaren oinarrizko forma.

Galderazkoa: will + subjektua + aditzaren oinarrizko forma.

Erabilerak

- Etorkizuneko gertakariak adierazteko edo iragarpenak egiteko.
- Finkatutako ordutegi bati buruz hitz egiteko.
- Bat-bateko erabakiak, hots, hitz egiten ari garen unean hartutakoak, adierazteko.

Be going to		
FORM		
Affirmative	Negative	Interrogative
I **am going to buy** You **are going to buy** He / She / It **is going to buy** We / You / They **are going to buy**	I **am not going to buy** You **are not (aren't) going to buy** He / She / It **is not (isn't) going to buy** We / You / They **are not (aren't) going to buy**	**Am** I **going to buy**? **Are** you **going to buy**? **Is** he / she / it **going to buy**? **Are** we / you / they **going to buy**?

Uses	Examples	Time expressions
A planned action for the future	*Mark is going to visit the robot exhibition this evening.*	this evening, later, in an hour, at 4 o'clock, tomorrow, soon, next month / year, in a few weeks, on 8th May
An action that is about to happen	*Be careful! You are going to burn your finger!*	

Egitura

Baiezkoa: subjektua + **am** / **is** / **are** + **going to** + aditz nagusiaren oinarrizko forma.

Ezezkoa: subjektua + **am / is / are** + **not** (edo **n't**) + **going to** + aditz nagusiaren oinarrizko forma.

Galderazkoa: am / is / are + subjektua + **going to** + aditzoina.

Erabilerak

- Etorkizun hurbilerako ditugun asmoei, erabakiei eta planei buruz hitz egiteko.
- Gertatzeko zorian dagoen zerbait adierazteko, aztarnak begi-bistakoak direlako.

Present Continuous etorkizun esanahiarekin

Aldez aurretik finkatuta egonik, etorkizun hurbilean gauzatuko diren ekintzak adierazten ditu. Hitzartutako egitasmo pertsonalekin erabili ohi da.

Be going to egiturak asmoa adierazten du; honek, berriz, asmoa ez, baizik eta ziur gertatuko den ekintza, aldez aurretik hitzartuta dagoelako. Esaldiak etorkizuneko denbora-esamoldea erabiliko du, ez orainaldikoa, eta horrek adierazten digu ez dela egiazko *Present Continuous* aldia.

He is going to present his new invention next month.
(Datorren hilean aurkeztuko du bere asmakizun berria.)[asmoa]

He is presenting his new invention tomorrow.
(Bihar doa bere asmakizun berria aurkeztera.)[hitzarturiko egitasmoa]

Future Continuous		
FORM		
Affirmative	Negative	Interrogative
I / You **will be travelling** He / She / It **will be travelling** We / You / They **will be travelling**	I / You **will not** (**won't**) **be travelling** He / She / It **will not** (**won't**) **be travelling** We / You / They **will not** (**won't**) **be travelling**	**Will** I / you **be travelling**? **Will** he / she / it **be travelling**? **Will** we / you / they **be travelling**?

Uses	Examples	Time expressions
An action in progress at a certain future time	*At this time tomorrow, Jenny and Lynda will be working in their new lab.*	at this time tomorrow / next ..., on Thursday, in the next decade

Egitura

Baiezkoa: subjektua + **will be** + **-ing** amaiera duen aditz nagusia erabiliz osatzen da.

Ezezkoa: subjektua + **will not** (edo **won't**) **be** + **-ing** daraman aditza.

Galderazkoa: will + subjektua + **be** + **-ing** bukaeradun aditza.

Erabilerak

- Etorkizuneko une zehatz batean zer gertatzen ariko den adierazteko erabiltzen da.

Future Perfect Simple		
FORM		
Affirmative	Negative	Interrogative
I / You **will have eaten** He / She / It **will have eaten** We / You / They **will have eaten**	I / You **will not** (**won't**) **have eaten** He / She / It **will not** (**won't**) **have eaten** We / You / They **will not** (**won't**) **have eaten**	**Will** I / you **have eaten**? **Will** he / she / it **have eaten**? **Will** we / you / they **have eaten**?

Uses	Examples	Time expressions
A completed action at a certain future time	*I will have finished my robot by August.*	by this time next week, by 3 o'clock, by the end of ..., by then, by August, in four months

Egitura

Baiezkoa: subjektua + **will have** + aditz nagusiaren partizipioarekin eratzen da.

Ezezkoa: subjektua + **will not** (edo **won't**) **have** + partizipioarekin osatzen da.

Galderazkoa: will + subjektua + **have** + partizipioa.

Erabilerak

- Etorkizuneko une zehatz batean ekintza amaituta egongo dela adierazteko.

be used to / get used to

Be used to formak "ohituta egon" adiera du; **get used to** forma, aldiz, ohitze-prozesuarekin dago lotua. Kasu bietan **to** partikularen atzean izena edo gerundioa jartzen da.

Azken bi egitura horiek ez dute zerikusirik aurretik ikusi duzun **used to** egiturarekin (2. unitatea). Bi egitura horietako **used** ez baita aditza, adjektiboa baizik.

Used formari laguntzen dioten aditzak **be** eta **get** dira, eta aditz horiek jokatu egiten dira.

Scientists are used to handling many devices.
(Zientzialariak ohituta daude tramankulu anitz erabiltzen.)

She is used to her old lab.
(Bere laborategi zaharrarekin ohituta dago.)

He is getting used to his new routine.
(Ohitzen ari da bere errutina berrian.)

I cannot get used to working in such a noisy office.
(Ezin naiz ohitu halako bulego zaratatsuan lan egiten.)

UNIT 4 Between Us

Aditz modalak		
Modals	Uses	Examples
can	Ability	*Tour guides can speak several languages.* (Gidari turistikoek hizkuntza desberdinak erabil ditzakete.)
	Request	*Can I stay here two more weeks?* (Geldi naiteke hemen bi aste gehiago?)
	Possibility	*She can be very moody at times.* (Oso aldartetsua izan daiteke batzuetan.)
be able to	Ability	*Susan is able to cook delicious meals.* (Susanek plater zoragarriak kuzina ditzake.)
	Possibility	*You will be able to meet my wife tonight.* (Nire emaztea ezagutu ahal izango duzu gauean.)
can't	Inability	*Alice can't sing very well.* (Alicek ezin du oso ondo abestu.)
	Prohibition	*You can't take your children with you.* (Ezin dituzu umeak zurekin eraman.)
	Disbelief, deduction	*That can't be Paul. He is in Ireland!* (Horrek ezin du Paul izan. Irlandan dago!)
could	Past ability	*She could dance very well when she was a child.* (Umea zela oso ongi egin zezakeen dantzan.)
	Polite request	*Could you introduce me to your guests?* (Aurkeztu ahal izango nauzu zure lagunen aurrean?)
	Polite suggestion	*You could take your parents out for dinner.* (Gurasoak afaltzera eraman zenitzake.)
	Possibility	*He could meet new people at the party.* (Jende berria ezagutu lezake festan.)
may, might	Possibility	*I may / might meet her mother tonight.* (Agian haren ama ezagutuko dut gauean.)
may	Polite request	*May I ask you a question?* (Gauza bat galde diezazuket?)
should, ought to	Advice, opinion	*You should / ought to accept Tim's proposal.* (Timen proposamena onartu behar zenukete.)
need to	Necessity, obligation	*I need to talk to the boss.* (Nagusiarekin hitz egin beharra dut.)
have to	Necessity, obligation	*Peter has to help his mother in the garden.* (Peterrek amari lagundu behar dio lorategian.)
must	Obligation, strong necessity	*She must phone her father immediately.* (Aitari telefonoz deitu beharra dauka berehala.)
	Strong belief	*Paul must be very happy in his new house.* (Paul oso pozik egongo da etxe berrian.)
mustn't	Prohibition	*You mustn't use the phone after midnight.* (Ezin duzu telefonoa erabili gauerditik aurrera.)
don't have to	Lack of obligation / necessity	*We don't have to go with Megan to the concert.* (Ez dugu Meganekin joan beharrik kontzertura.)
needn't	Lack of obligation / necessity	*You needn't bring anything to my party.* (Ez daukazu zertan ezer ekarri festara.)
would	Formal request	*Would you meet me tomorrow at my office, please?* (Nirekin bilduko al zinateke bihar nire bulegoan, mesedez?)
	Offer	*Would you like to come to the opera with me?* (Nirekin operara joan nahi al zenuke?)

Modalek hurrengo ezaugarriak dituzte:
- Aldagaitzak dira, horrenbestez, forma bera dute pertsona guztiekin, eta ez dira jokatzen.
- Ez dute **do** / **does** laguntzailearen beharrik ezezko eta galderazko formak osatzeko.
- Jarraian aditzoinak izaten dituzte beti.

Be able to eta **have to** aditzek ez dituzte ezaugarri horiek guztiak; bai, ordea, aditz modalen erabilera batzuk (gaitasuna, obligazioa, etab.).

Erabilera

can
- Trebetasuna edo gaitasuna adierazteko
- Eskaerak egiteko, baimena eman eta eskatzeko
- Posibilitatea azaltzeko
- \+ Iradokizunak egiteko

You can bring your camera on the tour.
(Ekar dezakezu kamera bisitaldira.)

be able to
- **Can** modalak duen adiera bera du, baina **can** *Present Simple* aldian bakarrik erabil daiteke; beraz, gainontzeko aditz-denboretan **be able to** aditzaz baliatuko gara.

can't
- **Can** modalaren ezezko forma da
- Zerbait ezinezkoa den ziurtasuna adierazteko

could
- Trebetasuna edo gaitasuna iraganean adierazteko
- **Can** aditzarekin baino modu jasoagoan zerbait eskatzeko
- **Can** aditzarekin baino posibilitate urriagoa adierazteko
- Iradokizunak egiteko, baina ez **can** aditzarekin bezain zuzenak

may / might
Zerbait gertatuko den posibilitatea adierazten dute (**might** aditzak urriagoa). **May**, halaber, eskaerak **can** aditzarekin baino era jasoagoan egiteko erabiltzen da.

should / ought to
Aholkuak eta gomendioak emateko erabiltzen dira biak. **Ought to**, ordea, kasik ez da erabiltzen ezezkoetan eta galderetan. **Should** da bietan erabiliena.

need to
Jokatu egin daitekeenez, edozein denboratan erabil daiteke. Obligazioa edo beharra adierazten ditu.

have to
Must aditzak dituen funtzio berberak ditu, nahiz eta adierazten duen obligazioa ez den hain indartsua. **Must** *Present Simple* aldian bakarrik erabil daitekeenez, gainontzeko aditz-denboretan **have to** aukeratuko dugu.

must
Obligazioa eta beharra adierazten ditu, batez ere legeak edo autoritateren batek ezarria. Gainera, ondorio logikoa ere adierazten du ("antza", "nonbait").

mustn't
Debekua adierazten du.

don't have to
"Ez eduki zertan" / "beharrik ez" adiera du; bestela esanda, obligazio eta beharrik eza (**needn´t** modalak bezalaxe).

needn't
Zerbait egiteko obligaziorik edo beharrik ez dagoela azaltzen du (**don´t have to** formak bezala).

would
Zerbait era jasoan eskatzeko edo eskaintzeko erabiltzen da.

Modal burutuak

Modal Perfects	Uses	Examples
could have	Ability to have done something but in fact did not	*It was a stupid thing to phone him at midnight. You could have woken his parents up.* (Lelokeria izan da gauerdian telefonoz deitzea hari. Bere gurasoak esnatzeko arriskuan egon zara.)
couldn't have	Certainty that something didn't happen	*My son couldn't have broken the window at school. He was at home with me.* (Nire semeak ezin izan du eskolako leihoa apurtu. Nirekin zegoen etxean.)
may / might have	A guess about a past action	*She may / might have forgotten about the meeting.* (Agian ahaztu egin zaio bilera zuela.)
must have	Certainty or logical conclusion about an event in the past	*I heard you got married. That must have been very exciting.* (Ezkondu egin zarela entzun dut. Guztiz zirraragarria izango zen.)
should / ought to have	Criticism or regret after an event	*You should / ought to have waited a couple of years before getting married.* (Urte pare bat gehiago itxaron behar zenuen ezkondu aurretik.)
shouldn't have	Criticism or regret after an event	*He shouldn't have invited his ex-girlfriend to the party.* (Ez zuen neskalagun ohia festara gonbidatu behar.)
would have	Willingness to have done something but in fact did not	*I would have visited my grandmother but my car broke down.* (Amona bisitatu ahal izango nuen, baina autoa matxuratu zait.)

***could have* + partizipioa**
Iraganean zerbait egin zitekeen arren, azkenean ez zela egin adierazten du.

***couldn't have* + partizipioa**
Zerbait gertatu izana ezinezkoa dela adierazteko.

***may / might have* + partizipioa**
Gertatutako zerbaiti buruz iragarpenak egiteko erabiltzen da.

***must have* + partizipioa**
Gertatutako ekintza baten ondorio logikoa azaltzeko erabiltzen da.

***should / ought to have* + partizipioa**
Bi forma horiekin, gertatutako zerbaiti buruzko kexa edo espero genuena bete ez delako pena adieraz ditzakegu.

***shouldn't have* + partizipioa**
Iraganeko gertakizun bati buruzko iritzi kritikoa adierazten du, ez zuela gertatu behar adieraziz.

***would have* + partizipioa**
Iraganean zerbait egin nahi izan zela, baina, kanpoko baldintzak medio, ez zela egiterik izan adierazten du.

Izenak osatzeko atzizkiak

Dakizun bezala, atzizkiak hitz batzuei gehitzen dizkiegun bukaerak dira, beste hitz berri batzuk sortzeko.

Aditzetatik izenak osatzeko atzizkien artean erabilienak -**mention**, **-tion** /**-sion**, **-er** /**-or**, **-ness**, **-ship** eta **-ity** ditugu.

Hona adibide batzuk:

agree (hitzartu) *agree**ment*** (hitzarmen)
invite (gonbidatu) *invita**tion*** (gonbidapen)
conclude (ondorioztatu) *conclu**sion*** (ondorio)
run (korrika egin) *runn**er*** (korrikalari)
sail (nabigatu) *sail**or*** (nabigatzaile)
happy (zoriontsu) *happi**ness*** (zoriontasun)
friend (lagun) *friend**ship*** (adiskidetasun)
personal (pertsonal) *personal**ity*** (nortasun)

We finally sent all the wedding invitations.
(Azkenean bidali genituen ezkontzarako gonbidapen guztiak.)

UNIT 5 What's It Worth?

Baldintzazko perpausak		
FIRST CONDITIONAL		
Conditional clause	Result clause	Examples
if / unless + Present Simple	Future Simple imperative modal + base form	*You will play the piano very well if you practise enough.*
		Ask for a larger size if the shoes are too small.
		If Alice needs a new T-shirt, she can go to the new shopping centre.
SECOND CONDITIONAL		
if / unless + Past Simple	*would / could / might* + base form	*If they had enough money, they would buy a piano for their son.*
		I could / might go on a cruise if I won the lottery.
THIRD CONDITIONAL		
if + Past Perfect	*would have / could / might have* + past participle	*If I had seen him playing in the street, I would have recognised him.*
		He could / might have gone to the concert if he had got a ticket.

Baldintzazko perpausak bi perpausez osatuta daude. Batak (**conditional clause**), baldintza adierazten du, eta besteak (**result clause**), ondoriozko ekintza edo emaitza. Ez dio axola zein hurrenkeratan kokatzen diren bi perpausak, baina baldintzazkoa bada lehena, koma jarri behar da bi perpausen artean.

If you lend me your mobile phone, I will be really grateful.
(Telefono mugikorra uzten badidazu, benetan eskertuta egongo natzaizu.)

I will be really grateful if you lend me your mobile phone.
(Benetan eskertuta egongo natzaizu telefono mugikorra uzten badidazu.)

Baldintzazko lehena

Honakoa da egitura: **if** + *Present Simple* baldintzazko perpausean eta *Future Simple* ondorioan. Baldintza betetzen bada, zer gertatuko den adierazten du.

Future Simple erabiltzeaz gain, modalekin edo aginterarekin ere adieraz dezakegu ondorioa.

You can't participate in the music contest if you aren't old enough.
(Ezin duzu musikako lehiaketan parte hartu, behar bezalako adinik ez baduzu.)

If you need a cheaper instrument, look for it in a second-hand shop.
(Instrumentu merkeagoa behar baduzu, begiratu bigarren eskuko denda batean.)

Baldintza ez betetzearen ondorioz zerbait gertatuko dela ala ez dela adierazi nahi badugu, hainbat aukera dugu: baldintza-perpausari **unless** juntagailuarekin eman hasiera ("ez ba..." / "ezean") –**if not** erabiltzearen pareko dena–, edo *Present Simple* aldian doan aditza ezeztatu.

Unless the concert finishes on time, you will miss the train.
If the concert doesn't finish on time, you will miss the train.
(Kontzertua garaiz bukatu ezean / garaiz bukatzen ez bada, trena galduko duzu.)

Gogoan izan **unless** nahiko maiz erabiltzen dela baldintzazko lehenean, baina ez horrenbeste bigarrenean, eta inoiz ez hirugarrenean.

Baldintzazko bigarrena

Honela eratzen da: **if** + *Past Simple* baldintzan, eta **would** + aditzoina ondorioan. Orainaldiarekin loturiko baldintza hipotetikoak adierazten ditu, hau da, gertatzeko aukera gutxi dutenak.

She would buy a new piano if she had the money.
(Piano berria erosiko luke, horretarako dirua balu.)

Baldintzako perpauseko aditza **to be** denean, **were** erabiltzen da singularreko nola pluraleko pertsona guztiekin.

If that guitar weren't so expensive, I would buy it.
(Gitarra hori hain garestia ez balitz, erosi egingo nuke.)

Eta aholkuak ematen ari garenean, **if I were** formula erabiltzen da.

If I were you, I wouldn't waste so much money.
(Nik zure tokian, ez nuke horrenbeste diru xahutuko.)

Would erabili ordez, **could** eta **might** modalak ere erabil ditzakegu emaitzan, baina horiek biek hipotesia burutzeko aukera are urriagoa dela adierazten dute. Euskaraz "agian, beharbada, gerta liteke" eta antzekoak erabil ditzakegu itzultzerakoan.

She could be a better singer if she attended singing lessons.
(Abeslari hobea izan liteke / Agian abeslari hobea litzateke, abesteko klaseetara joango balitz.)

Baldintzazko hirugarrena

Honela eratzen da: **if** + *Past Perfect* baldintzan, eta **would have** + partizipioa ondorioan. Kasu honetan baldintza erabat ezinezkoa da, iraganari lotua baitago; beraz, hipotesia burutu ezina da.

If Emily had come with us, she would have bought that bag.
(Emili gurekin etorri izan balitz, poltsa hori ekarriko zukeen.)

Would have + partizipioa erabili ordez, **could have** eta **might have** + partizipioa hautatuta ere osatzen da perpaus nagusia.

If Peter had arrived earlier, he could / might have seen the street performance.
(Lehenago iritsi izan balitz, kaleko antzezlana ikusi ahal izango zukeen Peterrek.)

Denborazko perpausak

Etorkizunarekin lotuta daudenak baldintzazko lehenak bezala eratzen dira: *Present Simple* aldia menpeko perpausean, eta *Future Simple* perpaus nagusian. Aldatzen direnak juntagailuak dira, eta, kasu honetan, **as soon as**, **by the time**, **the moment** (**that**), **when** eta antzekoak erabiltzen dira.

He'll buy a new computer as soon as he saves the money.
(Ordenagailu berria erosiko du dirua aurreztu bezain agudo.)

When I finish the exam, I'll phone him.
(Azterketa bukatzen dudanean, deituko diot.)

Preposizioa lagun duten aditzak

Aditz askok preposizio bakarra izaten dute ondotik.

I'm waiting for the bus.
(Autobusaren zain nago.)

Beste aditz batzuek preposizio bat baino gehiago onartzen dituzte, eta, preposizioen arabera, aditzaren esanahia aldatu egiten da.

arrive at (leku batera "iritsi")
arrive in (hiri edo herrialde batera "iritsi")
talk about ("zerbaiti / norbaiti buruz" hitz egin)
talk with / to ("norbaitekin" hitz egin)
think about ("iritzi, iruditu": "-z pentsatu")
think of ("-z pentsatu")

Hona hemen adibide batzuk:

She has already arrived at the bookshop.
(Liburu-dendara iritsi da jada.)

They arrived in New York an hour ago.
(Orain dela ordubete iritsi dira New Yorkera.)

We talked about our teachers.
(Gure irakasleei buruz hitz egin genuen.)

That customer wants to talk to the manager.
(Bezeroak arduradunarekin hitz egin nahi du.)

Adibide gehiago aztertzeko, ikus ezazu 29. orrialdean duzun preposiziodun aditzen zerrenda.

UNIT 6 Behind the Scenes

Boz pasiboa		
Tense	Active	Passive
Present Simple	*Matt Damon plays many roles.*	*Many roles are played by Matt Damon.*
Present Continuous	*Matt Damon is playing many roles.*	*Many roles are being played by Matt Damon.*
Past Simple	*Matt Damon played many roles.*	*Many roles were played by Matt Damon.*
Past Continuous	*Matt Damon was playing many roles.*	*Many roles were being played by Matt Damon.*
Present Perfect Simple	*Matt Damon has played many roles.*	*Many roles have been played by Matt Damon.*
Past Perfect Simple	*Matt Damon had played many roles.*	*Many roles had been played by Matt Damon.*
Future Simple	*Matt Damon will play many roles.*	*Many roles will be played by Matt Damon.*
Modals	*Matt Damon should play many roles.*	*Many roles should be played by Matt Damon.*
Modal Perfects	*Matt Damon must have played many roles.*	*Many roles must have been played by Matt Damon.*
have to	*Matt Damon has to play many roles.*	*Many roles have to be played by Matt Damon.*
be going to	*Matt Damon is going to play many roles.*	*Many roles are going to be played by Matt Damon.*

Egitura

Baiezkoa: subjektua + **to be** + aditza + aditz nagusiaren partizipioarekin eratzen da.

The role of Mandela was performed by Morgan Freeman.
(Mandelaren pertsonaia Morgan Freemanek antzeztu zuen.)

Ezezkoa: subjektua + **to be** aditza + **not** (edo **n't**) + aditz nagusiaren partizipioa. Perpausa aditz modalarekin, *Future Simple* aldiarekin edo adizki elkartu batekin osatuta badago, aditz modala, **will** edo **have** / **has** ezeztatuko ditugu.

The role of Mandela wasn't performed by Matt Damon.
(Mandelaren pertsonaia ez zuen Matt Damonek antzeztu.)

Galderazkoa: to be aditza + subjektua + partizipioa. Perpausa aditz modalarekin, *Future Simple* aldiarekin edo adizki elkartu batekin osatua badago, perpaus pasiboa modalarekin edo laguntzailearekin hasiko dugu, aktiboan bezalaxe.

Was this film directed by Clint Eastwood?
(Clint Eastwoodek zuzendu al zuen film hau?)

Nola bilakatu perpaus aktiboa pasibo

- Perpaus aktiboa pasibo nola bilakatzen den ikasi aurretik, jakin beharra dago boz pasiboa askoz arruntagoa dela ingelesez euskaraz baino; horregatik, itzultzeko garaian aditza boz aktiboan uztea hobesten da, eta forma inpertsonalak hautatzea edo hitzen hurrenkera aldatzea.

  Perpaus aktiboan aditzaren ondotik doan lehen osagarria bihurtuko da subjektu, dela osagarri zuzena dela zeharkakoa. Hain zuzen ere, zeharkakoa aurreratzea arruntagoa da, eta kasik ingelesak bakarrik duen ezaugarria, euskaraz ezin baita horrelako pasiborik osatu. Zeharkako osagarria izenordain objektua bada, izenordain subjektu formara pasatuko dugu.

  The director explained the plot.

  The plot was explained by the director.
  (Argudioa azaldu zuen zuzendariak.)

  Bi osagarri daudenean, subjektutzat zeharkakoa hautatzea da ohikoena.

  They are going to offer the role to Paul.

  Paul is going to be offered the role.
  (Pertsonaiaren antzezlana Pauli eskainiko diote.)

  Zeharkako osagarria izenordain objektua bada, izenordain subjektuaren forma hartuko du.

  The magazine's photographers will photograph them at the cinema.

  They will be photographed at the cinema by the magazine's photographers.

  (Argazkiak aterako dizkiete zineman aldizkariko argazkilariek.)

- Perpaus aktiboan aditz nagusiak zuen denboran jarriko dugu **to be** aditza, eta aditz nagusia, berriz, partizipioan.

  They bought the tickets last week.

  The tickets were bought last week.
  (Txartelak erosi zituzten lehengo astean.)

  Aditz modalak eta **be going to** egitura ez dira aldatzen, haien atzean dagoen aditza baita pasiboan jartzen dena.

  The technician must operate the camera.

  The camera must be operated by the technician.
  (Kamera maneiatu behar du teknikoak.)

  They are going to show a new film at this cinema.

  A new film is going to be shown at this cinema.
  (Film berri bat botako dute zinema honetan.)

- Perpaus aktiboko subjektua esaldiaren bukaerara pasatuko dugu, aurretik **by** preposizioa daramala. Eta pertsona-izenordaina bada, dagokion izenordain objektuaz trukatu behar dugu.

  This film critic has written the article.

  The article has been written by this film critic.
  (Artikulua idatzi du zinema-kritikoak.)

Erabilerak

- Ekintza burutzen duen subjektua baino garrantzitsuagoa ekintza bera dela nabarmendu nahi denean erabiltzen da, subjektua garrantzi gutxikoa delako, ezezaguna delako edo aipatu nahi ez delako. Era honetara, gainera, **somebody**, **nobody** eta antzeko subjektuak dituzten perpausak saihets ditzakegu.

  Somebody added subtitles to the film.

  Subtitles were added to the film.
  (Azpituluak gehitu zizkioten pelikulari.)

Aditz arazleak: *have / get + something + done*

Have / **get** + osagarri zuzena + iraganeko partizipioa, norbaiti eskatutako ekintzak adierazteko erabiltzen da.

I'm going to have / get my hair cut.
(Ilea moztera noa.) [beste pertsona batek egingo du, eta ez nik]

Egitura hau aditz-denbora gehienekin erabil daiteke.

Ann had her DVD player repaired.
(Annek DVD erreproduzitzailea konponarazi zuen.)

The band will have their instruments repaired soon.
(Taldeak laster izango ditu instrumentuak konponduta.)

Egitura honek esanahi pasiboa du, erdian doan osagarri zuzenak partizipioan dagoen aditzaren bitartez adierazitako ekintza jasotzen baitu. Euskaratzerakoan, ordea, boz aktiboa erabiliko dugu.

My car broke down, so I had it repaired yesterday.
(Autoa hondatu zitzaidanez, atzo konponarazi nuen.)

She should have her eyes checked every year.
(Urtero egin behar luke begietako azterketa.)

The actor got his book published (by a publisher).
(Antzezleak argitaratu zuen bere liburua.) [argitaletxe batek egin zuen]

Have nahiz **got** bereizgabe erabiltzen badira ere, **get** informalagoa da, eta arruntagoa ere bai, ingeles mintzatuan.

I got my house painted last week.
(Etxea pintatu nuen / zidaten joan den astean.)

Aurrizkiak

Dis-, **il-**, **im-**, **in-** eta **un-** aurrizkiak adjektibo batzuei gehituta, adjektibo horien kontrako esanahaia lortzen da.

satisfied (kontent)	***dis**satisfied* (kontentagaitz)
legal (legezko)	***il**legal* (ilegal)
patient (pazientzia handiko)	***im**patient* (pazientzia gutxiko)
correct (zuzen)	***in**correct* (oker)
pleasant (atsegin)	***un**pleasant* (ezatsegin)

Gogoan izan **in-** aurrizkia aldatu egiten dela ondorengo egoeretan:

- **il-**, **l-** batez hasten diren adjektiboen aurrean (***il**logical*).
- **im-**, **m-** edo **p-** batez hasten diren adjektiboen aurrean (***im**mortal*, ***im**possible*).
- **ir-** **r-** batez hasten diren adjektiboen aurrean (***ir**regular*).

Kontuan eduki, bestalde, batzuetan ez direla aurrizkiak, hitzaren zati baizik: *disaster, illusion, impressive, understand*, etab.

Eta hitz-mota desberdinei eransten zaizkien beste aurrizkien artean ditugu **anti-**, **inter-**, **multi-**, **over-**, **re-** eta **under-**.

social (sozial) — ***anti****social* (antisozial)
national (nazional) — ***inter****national* (nazioarteko)
lateral (alde) — ***mult****ilateral* (aldeanitzeko)
active (gogotsu) — ***over****active* (oso gogotsu)
write (idatzi) — ***re****write* (berridatzi)
ground (lur) — ***under****ground* (lurpeko)

UNIT 7 Out in the Cold

Zehar estiloa		
Tense	Direct Speech	Reported Speech
Present Simple	*"He lives in the street."*	*She said that he lived in the street.*
Present Continuous	*"He is living in the street."*	*She said that he was living in the street.*
Past Simple	*"He lived in the street."*	*She said that he had lived in the street.*
Past Continuous	*"He was living in the street."*	*She said that he had been living in the street.*
Present Perfect Simple	*"He has lived in the street."*	*She said that he had lived in the street.*
Present Perfect Continuous	*"He has been living in the street."*	*She said that he had been living in the street.*
Past Perfect Simple	*"He had lived in the street."*	*She said that he had lived in the street.*
Past Perfect Continuous	*"He had been living in the street."*	*She said that he had been living in the street.*
Future Simple	*"He will live in the street."*	*She said that he would live in the street.*

Aldaketak modaletan	
Direct Speech	Reported Speech
can	could
may	might
must / have to	must / had to
will	would

Aldaketak zenbait hitz eta esamoldetan	
Direct Speech	Reported Speech
now	then
today	that day
tonight	that night
yesterday	the previous day / the day before
last week	the previous week / the week before
a month ago	the previous month / the month before
tomorrow	the following day / the day after / the next day
next week	the following week / the week after
here	there
this	that
these	those

Norbaitek esandakoa kontatzeko erabiltzen da, baina pertsona horrek erabilitako hitz berberak aipatu gabe.

Reported statements

Norbaitek esan berri duena orainaldian konta dezakegu. Horretarako nahikoa da komatxoak kentzea, izenordain subjektua eta aditzaren pertsona aldatzea.

"I am tired."
He says that he is tired.
(Nekatuta dagoela dio.)

Ohikoena, dena dela, zehar estiloko menpeko perpausaren aurrean doan aditza (normalean **say** edo **tell**) lehenaldian jartzea da. Eta orduan, menpeko perpauseko aditzak atzera-jauzia egingo du (*Present Simple* aldia *Past Simple* aldira pasatuko da, bigarren hori *Past Perfect* deiturikora, etab.).

Komatxoak kentzeaz gain eta aditz-denborak aldatzeaz gain, ordea, beste aldaketa batzuk ere beharrezkoak dira; horrela bada, izenordainek eta denbora- nola leku-preposizioek ere aldaketak jasango dituzte.

Menpeko perpausa **that** juntagailuaz hasten da, baina ingeles mintzatuan isildu egiten da.

"I'll bring him food today," the elderly woman said.
The elderly woman said (that) she would bring him food that day.
(Adineko emakumeak esan zuen emango ziola janaria egun hartan.)

Perpausak egia orokorra adierazten duenean, aditz-denborak ez du inolako aldaketarik jasaten.

"Homeless people often sleep in airports," she said.
She said that homeless people often sleep in airports.
(Etxerik gabeko jendeak lo, sarri, aireportuetan egiten duela esan zuen hark.)

Zehar estiloari sarrera ematen dioten aditz arruntenak **say** eta **tell** dira. Bigarren aditz horrek **to** preposiziorik gabeko zeharkako osagarria darama beti; **say** aditzak, berriz, aukeran du osagarria eraman ala ez, baina badaraman kasuetan, preposizioa erabili beharra dauka.

"The police arrested a young man," he said.
He told us that the police had arrested a young man.
He said that the police had arrested a young man.
He said to us that the police had arrested a young man.
(Poliziak gizon gazte bat atxilotu zuela esan zigun hark.)

Reported questions

Ingelesez bi motatako galderak daude:

- **Yes / No questions** motakoak, hots, "bai" edo "ez" batekin erantzun daitezkeenak. Era horretako galderak zehar estilora aldatzeko **ask** aditza eta, ondotik, **if** edo **whether** partikula erabiliko ditugu. Orain galderak perpaus arrunt izatera pasa direnez, ez dago subjektu-aditz arteko hurrenkera-aldaketarik, ez dago galdera-ikurrik, ez eta komatxorik ere.

  "Did she sleep in the street?" the child asked.
  The child asked if / whether she had slept in the street.
  (Hark lo kalean egin al zuen galdetu zuen umeak.)

- **Wh-questions** motakoak ezin dira "bai" edo "ez" batekin erantzun. Galdetzaile batekin hasten direnak ditugu hauek (**what**, **who**, **where**, **when**, **why**, **whose**, **how**, **how long**, etab.), eta zehar estilora pasatzerakoan, galdetzailea **if** edo **whether** partikulen tokian kokatuko dugu. Jarraian subjektua eta aditza joango dira, eta galdera-ikurra nahiz komatxoak alde batera utziko ditugu

  "Where does the famous footballer live?" Joe asked.
  Joe asked where the famous footballer lived.
  (Joek galdetu zuen non bizi zen futbolari ospetsua.)

Reported orders / requests

Aginduak zehar estilora pasatzeko, infinitiboa erabiliko dugu aginteraren ordez. Baina, infinitiboaren aurretik, agindua adierazten duen aditza erabiliko dugu –**tell** edo **order** adibidez–, atzean zeharkako osagarria daramala. Badira beste aditz batzuk ere, aginduak adierazi ez arren, egitura hau jarraitzen dutenak: **ask** eta **beg** aditzak eskaerak adierazteko, edo **warn** norbaiti ohartarazpena egiteko.

"Tidy your room now."
My mother ordered me to tidy my room then.
(Amak logela berehala txukuntzeko agindu zidan.)

Ezezko perpaus bat dugunean, **not** kokatuko dugu **to** partikularen aurrean.

"Don't wake her up, please."
My father asked me not to wake her up.
(Aitak eskatu zidan ez nezala esna.)

Reported suggestions

Aurrena subjektua jarriko dugu, eta **suggest** edo **recommend** aditzak lehenaldian; ondoren, pertsona horrek iradokitakoa adieraziko dugu. **Advise** aditza ere erabil daiteke aholkuak emateko, edo **invite** gonbitea luzatzeko. Iradokizunak bi eratara pasatzen dira zehar estilora:

- **That** partikularekin hasten den perpausa osagarri zuzentzat erabiliz, subjektua eta aditza oinarrizko forman dituela.

  "Let's join the demonstration," Peter suggested.
  Peter suggested that we join the demonstration.
  (Manifestaldian parte har genezan iradoki zuen Peterrek.)

- Gerundioa erabiliz, subjekturik zehaztu gabe.

  "Let's call airport security immediately!"
  He suggested calling airport security immediately.
  (Aireportuko segurtasunera berehala dei genezan proposatu zuen.)

Reporting verbs

Zehar estiloari sarrera emateko gehien erabiltzen diren aditzak **say**, **tell** eta **ask** dira. Aditz horiek mezua helarazten digute soilik, informazio gehiago gaineratu barik. Baina hiztunaren intentzioa edo erabilitako doinua ere azaldu nahi baditugu, aipatutakoez gain, **reporting verbs** ugari erabil ditzakegu:

- Baieztapenetarako: **admit**, **announce**, **answer**, **apologise**, **boast**, **claim**, **complain**, **declare**, **explain**, **inform**, **insist**, **mention**, **offer**, **remind**, **reply**, **state**
- Galderetarako: **enquire**, **request**, **want to know**, **wonder**
- Aginduetarako: **demand**, **order**, **shout**, **warn**
- Erreguetarako: **beg**
- Iradokizunetarako: **advise**, **invite**, **recommend**, **suggest**

  "We will be home late."
  They reminded me that they would be home late.
  (Etxera berandu etorriko zirela gogorarazi zidaten.)

  "Did you see him at the party?"
  Mary wanted to know if I had seen him at the party.
  (Mutila festan ikusi al nuen jakin nahi zuen Maryk.)

  "Phone me when you get there!"
  She shouted (at) me to phone her when I got there.
  (Iristen nintzenean telefonoz deitzeko oihu egin zidan.)

  "You should get a better job."
  My father advised me to get a better job.
  (Lanpostu hobea aurki nezan aholkatu zidan aitak.)

UNIT 8 Everybody's Business?

Erlatibozko perpausak	
DEFINING RELATIVE CLAUSES	
Uses	Examples
who and **that** refer to people	*John is the person who / that got fired because of the information on his profile.*
which and **that** refer to objects	*The photo which / that appears in my Facebook profile was taken in Rome.*
when and **that** refer to a moment in time	*He sent me a message the day when / that I celebrated my birthday.*
where refers to a particular place	*Facebook is a social network where you can contact your friends.*
whose refers to possession	*Jane is the girl whose laptop I bought.*
NON-DEFINING RELATIVE CLAUSES	
Uses	Examples
that cannot replace **who** or **which**	*Tuenti, which is a Spanish social network, is only accessible by invitation.*
	Jason, who is older than me, has lost his mobile phone.

Erlatibozko izenordain edo adberbio batez hasten diren menpeko perpausak dira, eta bi motatakoak daude: **defining** (murrizgarriak) eta **non-defining** (ez-murrizgarriak).

Defining Relative Clauses

Murrizgarriek aurrekariari buruzko ezinbesteko informazioa ematen digute. Perpaus horien faltan, esanahia osatu gabe gelditu litzateke.

- **Who** (pertsonak), **which** (gauzak) eta **that** (pertsonak eta gauzak) izenordainak ken daitezke subjektu-funtzioa betetzen ez badute. **Whose** (jabetza) ezin da, ez kendu, eta ez ordeztu.

  She is the girl who / that posted your photos on Facebook.
  (Hura da zure argazkiak Facebooken eseki zituen neska.)

  I did not get the text message (which / that) she sent.
  (Ez nuen hark bidalitako testu-mezua jaso.)

  This is the blog whose author is unknown.
  (Hau da egile ezezaguna duen "bloga".)

- **When** (denbora) ken dezakegu edo, bere ordez, **that** erabili.

  I'll never forget the day (when / that) Spain won the World Cup.
  (Inoiz ez dut ahaztuko Espainiak Munduko Kopa irabazi zuen eguna.)

- **Where** (lekua) ezin da **that** bitartez ordeztu, eta gutxitan ken daiteke.

  This is the site where I find all the information.
  (Hau da informazio guztia aurkitu nueneko webgunea.)

Erlatibozko izenordainak preposizioa badarama, ohikoena kentzea da, eta preposizioa aditzaren ondoren kokatzea.

The boy (who / that) I talked to was very shy.
(Nirekin hitz egiten aritu zen mutila oso lotsatia zen.)

Non-defining Relative Clauses

Ez-murrizgarriek aurrekariari buruzko informazio gehigarria soilik ematen digute; horregatik, koma artean erabiltzen dira. **Who**, **which**, **when**, **where** eta **whose** partikulekin eraikitzen dira. Horiek inoiz ezin dira kendu, eta ezta **that** izenordainarekin ordeztu ere.

Jack, who hasn't got a Facebook profile, didn't see your photos.
(Jackek, Facebooken profilik ez duenak, ez zituen zure argazkiak ikusi.)

Preposizioa lagun duten adjektiboak

To be aditzaren ondoren maiz aurkituko ditugu jarraian preposizioa + izena, izenordaina edo gerundioa daramatzaten adjektiboak. Atributu funtzioa betetzen dute.

I'm thrilled by this new social network.
(Izugarri gustatzen zait sare sozial berri hau.)

She's interested in mobile technology.
(Interes handia du teknologia mugikorretan.)

She is well-known for her donations to an AIDS organisation.
(Oso ezaguna da HIESaren kontrako erakunde bati egin dizkion diru-emariengatik.)

Ikus 33. orrialdean dagoen adjektiboen zerrenda, adibide gehiago aztertu ahal izateko.

UNIT 9 Cultural Contrasts

want + infinitiboa / *want* + objektua + infinitiboa

- ***want* + infinitiboa:** zerbait egiteko desioa adierazten du.

  Joe wants to build a school in Pakistan.
  (Joek eskola bat eraiki nahi du Pakistanen.)

Euskaraz osagarri zuzenaren funtzioa duen infinitiboa izaten du jarraian; beraz, **want** aditzaren subjektua eta infinitiboarena bat bera da.

- ***want* + objektua + infinitiboa:** beste norbaitek zerbait egin dezan desioa adieraziko dugu.

  Sara wants her aunt to be an open-minded person.
  (Sarak izeba pentsaera irekikoa izan dadin nahi du.)

Euskaraz aditza subjuntiboan duen menpeko perpaus subjektuduna erabiltzen dugu; ingelesez, berriz, subjektua ez da egiaz subjektutzat jotzen, **want** aditzaren osagarri zuzentzat baizik; horregatik, osagarri zuzena izenordaina denean, izenordain objektuak erabiliko ditugu.

Do you want me to phone your father for permission?
(Nahi al duzu zure aitari baimena eskatzeko dei diezaiodan?)

Glossary

The Glossary includes vocabulary from the Student's Book and the Vocabulary Builder (Workbook).

UNIT 1

accommodation /əkɒmə'deɪʃn/ ostatu

achieve /ə'tʃi:v/ lortu, erdietsi

awareness /ə'weənəs/ kontzientzia

bee /bi:/ erle

bored /bɔ:d/ aspergarri

break the ice /breɪk ði: 'aɪs/ izotzaldia urtu

colourful /'kʌləfl/ koloretsu

crowded /'kraʊdɪd/ jendez beteta / gainezka

desert /'dezət/ basamortu

deserted /dɪ'zɜ:tɪd/ hutsik

eel /i:l/ aingira

encounter /ɪn'kaʊntə/ topaketa

excited /ɪk'saɪtɪd/ hunkiturik, zirraraz beterik

exotic /ɪg'zɒtɪk/ arrotz, exotiko

face (v) /feɪs/ -i aurre egin

fence /fens/ hesi

flat /flæt/ lau, ordeka

foreign /'fɒrən/ atzerritar

get off /get 'ɒf/ (autobusetik, trenetik) jaitsi

get up /get 'ʌp/ altxatu / igo

give up /gɪv 'ʌp/ amore eman, utzi

go abroad /gəʊ ə'brɔ:d/ atzerrira joan

goal /gəʊl/ helburu

guide /gaɪd/ gida

guided tour /gaɪdɪd 'tʊə/ bisita gidatu

hiking /'haɪkɪŋ/ txangozaletasun

hilly /'hɪli/ malkartsu

hire /'haɪə/ kontratatu

hostile /'hɒstaɪl/ aurkako, etsai

impressive /ɪm'presɪv/ harrigarri

isolated /'aɪsəleɪtɪd/ bakartu, isolatu

journey /'dʒɜ:ni/ bidaia

landmark /'lændmɑ:k/ erreferentzia-puntu, leku / monumentu ospetsu

lively /'laɪvli/ animatu, alai

local /'ləʊkl/ lokal

make a reservation /meɪk ə rezə'veɪʃn/ erreserba egin

mountain /'maʊntən/ mendi

mountainous /'maʊntənəs/ menditsu

noisy /'nɔɪzi/ zaratatsu

peaceful /'pi:sfl/ lasai, baketsu

rafting /'rɑ:ftɪŋ/ jaitsiera baltsan, *rafting*

rappelling /ræ'pelɪŋ/ rappelean jaitsi

remote /rɪ'məʊt/ urrun

river /'rɪvə/ ibai

rocky /'rɒki/ arrokatsu

route /ru:t/ ibilbide

run out of /rʌn 'aʊt əv/ -(r)ik gabe gelditu

rural /'rʊərəl/ baserri-, baserri giroko

sandy /'sændi/ areatsu

scenery /'si:nəri/ paisaia

set off /set 'ɒf/ irten, abiatu

show up /ʃəʊ 'ʌp/ azaldu, iritsi, (leku batera) agertu

souvenir /su:və'nɪə/ oroigarri

steep /sti:p/ aldapatsu

take off /teɪk 'ɒf/ (hegazkina) aireratu

tired /'taɪəd/ nekatuta

travel arrangements /'trævl əreɪndʒments/ bidaiarako prestaketa-lanak

turn back /tɜ:n 'bæk/ itzuli

unpredictable /ʌnprɪ'dɪktəbl/ aurreikusi / aurresan ezin dena

urban /'ɜ:bən/ hiritar

warn /wɔ:n/ ohartarazi

watch out /wɒtʃ 'aʊt/ kontuz ibili

Talking About a Picture

I suppose ... /aɪ sə'pəʊz/	-(e)la uste dut...
Maybe ... /'meɪbi/	Agian...
We can see that ... /wi: kæn 'si: ðæt/	-(e)la...
It's hard to tell. /ɪts hɑ:d tə 'tel/	Zaila da azaltzen.
They probably ... /ðeɪ 'prɒbəbli/	Agian haiek...
They seem to be ... /ðeɪ 'si:m tə bi:/	-(e)la dirudite...
It looks like ... /ɪt 'lʊks laɪk/	Badirudi...
... looks ... /lʊks/	Antza denez, …
In the background ... /ɪn ðə 'bækgraʊnd/	Atze-atzean...
At the top / bottom of the picture ... /æt ðə 'tɒp / 'bɒtəm əv ðə pɪktʃə/	Argazkiaren goiko / beheko aldean...

Useful Expressions

It is located ... /ɪt ɪz ləʊ'keɪtɪd/	Kokatua dago...
It is possible to … /ɪt ɪz 'pɒsəbl tə/	Baliteke...
A popular attraction / landmark is … /ə 'pɒpjələ ətrækʃn / lændmɑ:k ɪz/	Erreferentzia-puntu ezagun… / Monumentu ezagun...
It is well-known for … /ɪt ɪz wel'nəʊn fə/	-(en)gatik da ezaguna...
The views are … /ðə 'vju:z ɑ:/	Bisitak ... dira.
It's got … /ɪts 'gɒt/	… du.
You shouldn't miss … / ju: 'ʃʊdnt mɪs/	Ez gero aukera galdu...

UNIT 2

accident /'æksɪdənt/ istripu

alive /ə'laɪv/ bizirik

amazed /ə'meɪzd/ harrituta

amazing /ə'meɪzɪŋ/ harrigarri

amused /ə'mju:zd/ entretenituta

amusing /ə'mju:zɪŋ/ entretenigarri, jostagarri, atsegingarri

backpacker /'bækpækə/ motxila-bidaiari

bored /bɔ:d/ aspertuta (*be* ~: asperturik egon, aspertu)

boring /'bɔ:rɪŋ/ aspergarri (*be* ~: aspergarria izan)

brave /breɪv/ ausart

chewing gum /'tʃu:ɪŋ gʌm/ txikle

confused /kən'fju:zd/ nahastuta

confusing /kən'fju:zɪŋ/ nahasgarri

crew /kru:/ tripulazio, eskifaia

due to /'dju: tu:/ -(en)gatik, -(e)lako

earthquake /'ɜ:θkweɪk/ lurrikara

emergency landing /imɜ:dʒənsi 'lændɪŋ/ larrialdiko lurreratze

escape (n) /ɪ'skeɪp/ ihes, askapen (*have a lucky* ~: ozta-ozta salbatu)

escape (v) /ɪ'skeɪp/ ihes egin

eventually /ɪ'ventʃʊəli/ azkenean

excited /ɪk'saɪtɪd/ hunkiturik

exciting /ɪk'saɪtɪŋ/ hunkigarri

exhausted /ɪg'zɔ:stɪd/ nekaturik

exhausting /ɪg'zɔ:stɪŋ/ nekagarri

explosion /ɪk'spləʊʒn/ leherketa

extremely frightened /ɪk'stri:mli fraɪtnd/ guztiz beldurturik

fascinated /'fæsɪneɪtɪd/ liluraturik

fascinating /'fæsɪneɪtɪŋ/ liluragarri

fear /fɪə/ beldur

fire /'faɪə/ su

firefighter /'faɪəfaɪtə/ suhiltzaile

flood /flʌd/ uholde

frightened /'fraɪtnd/ beldurturik (*be* ~: beldur izan)

frightening /'fraɪtnɪŋ/ izugarrizko, ikaragarrizko

frustrated /frʌ'streɪtɪd/ lur jota, frustraturik

frustrating /frʌ'streɪtɪŋ/ lur jotzeko / frustratzeko moduko

health /helθ/ osasun

hero /'hɪərəʊ/ heroi

hurt /hɜ:t/ zauritu

injured /'ɪndʒəd/ zaurituta

interested /'ɪntrəstɪd/ interesatuta

interesting /'ɪntrəstɪŋ/ interesgarri

irritated /'ɪrɪteɪtɪd/ sumindurik, haserre

irritating /'ɪrɪteɪtɪŋ/ sumingarri

isolated /'aɪsəleɪtɪd/ bakarti, isolatu

isolating /'aɪsəleɪtɪŋ/ isolatzaile

keep warm /ki:p 'wɔ:m/ bero / epel mantendu

landing /'lændɪŋ/ lurreratze

lucky /'lʌki/ zorteko (*be*~: zortea izan)

manage /'mænɪdʒ/ moldatu, konpondu

missing /'mɪsɪŋ/ desagerturik

natural disaster /nætʃrəl dɪ'zɑ:stə/ hondamendi natural

not dangerous /nɒt 'deɪndʒərəs/ arriskurik gabeko

on his own /ɒn hɪz 'əʊn/ bere kabuz, bakarrik

panic /'pænɪk/ beldurtu, izutu

passenger /'pæsɪndʒə/ bidaiari

plane crash /'pleɪn kræʃ/ hegazkin-istripu

praise /preɪz/ laudatu, goraipatu

reach /ri:tʃ/ iritsi

realise /'ri:əlaɪz/ -z konturatu, ohartu

relaxed /rɪ'lækst/ erlaxatuta, lasai

relaxing /rɪ'læksɪŋ/ erlaxagarri, lasaigarri

relief /rɪ'li:f/ lasaitu; lasaigarri

relieved /rɪ'li:vd/ lasaituta

rescue (n) /'reskju:/ erreskate, salbamendu

rescue (v) /'reskju:/ erreskatatu, salbatu

rescue worker /'reskju: wɜ:kə/ erreskate-taldeko kide

risk /rɪsk/ arriskatu

road accident /'rəʊd æksɪdənt/ zirkulazio-istripu

safe /seɪf/ ziur, onik

satisfied /'sætɪsfaɪd/ pozik, kontent

satisfying /'sætɪsfaɪɪŋ/ on, pozgarri

save (someone's) life /seɪv sʌmwʌnz 'laɪf/ (norbaiten) bizia salbatu

scared /skeəd/ beldurturik (*be* ~: beldur izan)

scream /skri:m/ oihu egin

search /sɜ:tʃ/ bilaketa

search party /'sɜ:tʃ pɑ:ti/ bilaketa-talde
shocked /ʃɒkt/ asaldaturik
shocking /'ʃɒkɪŋ/ asaldagarri
shout /ʃaʊt/ txilio egin
stay calm /steɪ 'kɑ:m/ lasai egon
stream /stri:m/ erreka
surprised /sə'praɪzd/ harriturik
surprising /sə'praɪzɪŋ/ harrigarri
survival /sə'vaɪvl/ biziraupen
survivor /sə'vaɪvə/ bizirik atera dena
terrified /'terɪfaɪd/ izututa, ikaratuta
terror /'terə/ izu-ikara
thrilled /θrɪld/ zirraraz beterik
thrilling /'θrɪlɪŋ/ zirraragarri
trapped /træpt/ harrapatuta, atzituta
victim /'vɪktɪm/ biktima
worried /'wʌrid/ kezkaturik
worrying /'wʌrɪŋ/ kezkagarri

Talking About a Past Event

What happened? /wɒt 'hæpənd/	Zer gertatu zen?
When did it happen? /'wen dɪd ɪt hæpən/	Noiz gertatu zen?
Where did it happen? /'weə dɪd ɪt hæpən/	Non gertatu zen?
How did it begin? /haʊ dɪd ɪt bɪ'gɪn/	Nola hasi zen?
What happened next? /wɒt hæpənd 'nekst/	Zer gertatu zen ondoren?
What happened after that? /wɒt hæpənd ɑ:ftə 'ðæt/	Horren ondoren zer gertatu zen?
What happened in the end? /wɒt hæpənd ɪn ðə 'end/	Zer gertatu zen azkenean?
How did the people feel? /haʊ dɪd ðə pi:pl 'fi:l/	Nola sentitu zen jendea?
I'm sorry, I didn't hear that. /aɪm sɒri aɪ dɪdnt 'hɪə ðæt/	Barkatu, ez dizut entzun.
Can you repeat that, please? /kən ju: rɪ'pi:t ðæt pli:z/	Esango al duzu berriro, mesedez?

Useful Expressions

It all began when ... /ɪt ɔ:l bɪ'gæn wen/	-(e)an hasi zen guztia...
One afternoon / day, ... /wʌn ɑ:ftə'nu:n / 'deɪ/	Arratsalde / Egun batean, …
Last week / year, ... /lɑ:st 'wi:k / 'jɪə/	Joan zen astean / urtean, …
It was a ... /ɪt 'wəz ə/	... izan zen.
Before I knew it, ... /bɪ'fɔ: aɪ n ju: ɪt/	Konturatu aurretik, …
That's when ... /'ðæts wen/	…-(e)an izan zen hori
Suddenly, ... /'sʌdənli/	Bat-batean, …
Two years ago, ... /tu: 'jɪəz əgəʊ/	Orain dela bi urte, …

UNIT 3

accurate /'ækjərət/ zehatz, doi
breakthrough /'breɪkθru:/ aurrerapen nabarmen
clean up /kli:n 'ʌp/ garbitu
coast /kəʊst/ kostalde
come up with an idea /kʌm ʌp wɪ æn aɪ'dɪə/ ideia proposatu / bururatu
complicated /'kɒmplɪkeɪtɪd/ korapilatsu
conduct an experiment /kɒndʌkt æn ɪk'sperɪment/ saiakuntza / esperimentua gidatu
consider /kən'sɪdə/ iritzi, -tzat jo
considerable /kən'sɪdərəbl/ aintzakotzat har daitekeena
considerate /kən'sɪdərət/ adeitsu, arretatsu
continue /kən'tɪn ju:/ jarraitu
continuous /kən'tɪn ju:əs/ jarraitu, iraunkor
convenient /kən'vi:nɪənt/ komenigarri
conveyor belt /kən'veɪə belt/ uhal garraiatzaile
crash /kræʃ/ (ordenagailua) blokeatu
create /kri'eɪt/ sortu
creative /kri:'eɪtɪv/ sortzaile, irudimentsu
danger /'deɪndʒə/ arrisku
dangerous /'deɪndʒərəs/ arriskutsu
deal with /'di:l wɪð/ -ekin tratua izan; -en kargu egin
depend /dɪ'pend/ -en menpe egon
dependable /dɪ'pendəbl/ fidagarri
device /dɪ'vaɪs/ tresna, tramankulu
download information /daʊnləʊd ɪnfə'meɪʃn/ informazioa jaitsi
download music /daʊnləʊd 'mju:zɪk/ musika jaitsi
effect /ɪ'fekt/ eragin
effective /ɪ'fektɪv/ eraginkor, eragile
efficient /ɪ'fɪʃnt/ eraginkor
environment /ɪn'vaɪrənmənt/ ingurumen
environmental /ɪnvaɪrən'mentl/ ingurumen-
environmentally-friendly /ɪnvaɪrənmentəli'frendli/ ekologiko, ingurumena zaintzen duena
fame /feɪm/ ospe
famous /'feɪməs/ ospetsu
fight to /'faɪt tə/ -t(z)eko borrokatu
foolproof /'fu:lpru:f/ erabilerraz
impress /ɪm'pres/ zirrara sorrarazi
impressive /ɪm'presɪv/ zirraragarri, hunkigarri

innovate /'ɪnəveɪt/ berritu
innovative /'ɪnəveɪtɪv/ berritzaile
laptop /'læptɒp/ ordenagailu eramangarri
latest /'leɪtɪst/ azkeneko, berrien
light bulb /'laɪt bʌlb/ bonbilla
long-lasting /lɒŋ'lɑːstɪŋ/ iraunkor
make music /meɪk 'mjuːzɪk/ musika jo
make progress /meɪk 'prəʊgres/ aurrerapenak egin
multi-purpose /mʌlti'pɜːpəs/ erabilera anitzeko
no longer /nəʊ 'lɒŋgə/ gehiago ez
occur /ə'kɜː/ gertatu, jazo
oil spill /'ɔɪl spɪl/ petrolio-isuri
out-of-date /aʊtəv'deɪt/ zaharkitu
person /'pɜːsn/ pertsona
personal /'pɜːsənl/ pertsonal
practical /'præktɪkl/ praktiko, erabilgarri
practice/'præktɪs/ praktika, jardute
product /'prɒdʌkt/ produktu, ekoizkin
productive /prə'dʌktɪv/ emankor
reliable /rɪ'laɪəbl/ fidagarri
rely on /rɪ'laɪ ɒn/ -ekin fidatu
remind /rɪ'maɪnd/ norbaiti zerbait gogorarazi
search engine /'sɜːtʃ endʒɪn/ bilaketa-tresna, bilatzaile
set on fire /set ɒn 'faɪə/ su eman
shut down /ʃʌt 'daʊn/ itzali
solve a problem /sɒlv ə 'prɒbləm/ arazoa konpondu
spread /spred/ hedatu, zabaldu
start up /stɑːt 'ʌp/ martxan jarri, hasi, abiarazi
store information /stɔː ɪnfə'meɪʃn/ informazioa gorde
store music /stɔː 'mjuːzɪk/ musika gorde
swarm /swɔːm/ erlekume
up-to-date /ʌptə'deɪt/ eguneratu, moderno
user-friendly /juːzə'frendli/ erabilerraz
valuable /'væljʊəbl/ baliotsu, balio handiko
value /'væljuː/ balio
weight /weɪt/ pisu

Comparing Pictures

I've just noticed ... /aɪv dʒʌst 'nəʊtɪst/	Oraintxe ohartu naiz…
And there's another thing ... /ənd ðeəz ə'nʌðə θɪŋ/	Eta beste zerbait ere badago…
Look at this! /lʊk æt 'ðɪs/	Begira honi!, Ikusi hau!
Did you notice ...? /dɪd juː 'nəʊtɪs/	Konturatu al zara…?
The pictures are similar because ... /ðə pɪktʃəz ɑː 'sɪmələ bɪkɒz/	Argazkiak antzekoak dira …-(e)lako.
In both pictures ... /ɪn 'bəʊθ pɪktʃəz/	Bi argazkietan…
Picture I shows ... while Picture II shows ... /pɪktʃə 'wʌn ʃəʊz ... waɪl pɪktʃə 'tuː ʃəʊz/	I argazkiak … erakusten du, II argazkiak, berriz, …
The pictures are different because ... /ðə pɪktʃəz ɑː 'dɪfrənt bɪkɒz/	Argazkiak desberdinak dira, …-(e)lako.
One difference is that in picture I, ... but in picture II, ... /wʌn 'dɪfrəns ɪz ðæt ɪn pɪktʃə 'wʌn ... bət ɪn pɪktʃə 'tuː .../	Desberdintasun bat zera da, I argazkian …-(e)la, baina II argazkian, …
they both show ... /ðeɪ 'bəʊθ ʃəʊ/	bietan ikus daitezke...
more ... than ... /'mɔː ... ðən .../	… baino gehiago

Useful Expressions

Hi ... , /haɪ/	Kaixo, …
Dear ... , /dɪə/	… maitea.
How are you? /haʊ ɑː 'juː/	Zer moduz?
I'm writing to tell you about … /aɪm raɪtɪŋ tə 'tel juː əbaʊt/	… kontatzeko ari natzaizu idazten.
That's all for now. /ðæts 'ɔːl fə naʊ/	Hori da guztia oraingoz.
Write soon! /raɪt 'suːn/	Idatzi azkar!
See you soon! /siː juː 'suːn/	Laster arte!
Love, /lʌv/	Bihotzez,
Regards, /rɪ'gɑːdz/	Adeitasunez,

UNIT 4

accommodate /ə'kɒmədeɪt/ ostatu eman
accommodation /əkɒmə'deɪʃn/ ostatu
acquaintance /ə'kweɪntəns/ ezagun
adventurous /əd'ventʃərəs/ abenturazale
argue /'ɑːgjuː/ eztabaidatu
argument /'ɑːgjʊmənt/ eztabaida
arrange /ə'reɪndʒ/ hitzartu, konpondu
arrangement /ə'reɪndʒmənt/ hitzarmen, konponketa
attraction /ə'trækʃn/ erakarpen, atrakzio
attractive /ə'træktɪv/ erakargarri
average height /'ævərɪdʒ haɪt/ batez besteko garaiera
aware of /ə'weə ɒv/ -en jakitun
awareness /ə'weənəs/ kontzientzia
(social) background /(səʊʃl) 'bækgraʊnd/ ingurune (sozial)
break up /breɪk 'ʌp/ banandu, (harremana) hautsi

broken-hearted /brəʊkən'hɑːtɪd/ lur jota, abailduta
cheerful /'tʃɪəfl/ alai
claim /kleɪm/ baietsi
close friend /'kləʊs frend/ lagun min
compatibility /kəmpætə'bɪlətɪ/ bateragarritasun
compatible /kəm'pætəbl/ bateragarri
confident /'kɒnfɪdənt/ ustetsu, norberarengan konfiantza osoa duena
couple /'kʌpl/ bikote
curly hair /'kɜːli heə/ ile kizkur
dark /dɑːk/ ilun
dark hair /'dɑːk heə/ ile ilun
dark skin /'dɑːk skɪn/ larruazal ilun
darkness /'dɑːknəs/ iluntasun
date /deɪt/ hitzordu; bikotekide
decide /dɪ'saɪd/ erabaki
decision /dɪ'sɪʒn/ erabaki
describe /dɪ'skraɪb/ deskribatu
description /dɪ'skrɪpʃn/ deskribapen
divorced /dɪ'vɔːst/ dibortziatuta (*get*~: dibortziatu)
doubt /daʊt/ zalantza egin
energetic /enə'dʒetɪk/ kementsu
engaged /ɪn'geɪdʒd/ konprometitu
fair hair /'feə heə/ ile argi
fall in love /fɔːl ɪn 'lʌv/ maitemindu
fiancé /fi'ɒnseɪ/ senargai
fiancée /fi'ɒnseɪ/ emaztegai
friend /frend/ lagun
friendship /'frendʃɪp/ adiskidetasun
generous /'dʒenərəs/ eskuzabal
get along /get ə'lɒŋ/ ondo konpondu
get to know /get tə 'nəʊ/ ezagutu
give it a chance /gɪv ɪt ə 'tʃɑːns/ aukera eman
go out (with) /gəʊ 'aʊt wɪð/ (norbaitekin) atera
good-looking /gʊd'lʊkɪŋ/ xarmant, eder
great sense of humour /greɪt sens əv 'hjuːmə/ umore sen aparta
grow apart /grəʊ ə'pɑːt/ urrundu
happiness /'hæpɪnəs/ zoriontasun
happy /'hæpi/ zoriontsu
hard-working /hɑːd'wɜːkɪŋ/ langile, saiatu
helpful /'helpfl/ lagunkoi, adeitsu
impress /ɪm'pres/ hunkitu
impressive /ɪm'presɪv/ hunkigarri
increase /ɪn'kriːs/ gehitu, handitu
keep in touch /kiːp ɪn 'tʌtʃ/ harremanetan egon
last /lɑːst/ iraun
long-lasting /lɒŋ'lɑːstɪŋ/ iraunkor
make friends /meɪk 'frendz/ lagun egin
married /'mærid/ ezkondurik (*get*~: ezkondu)
matching /'mætʃɪŋ/ elkarrekikotasun, bateragarritasun
mate /meɪt/ lagun, kide
moody /'muːdi/ aldartetsu, umore txarreko
muscular /'mʌskjələ/ gihartsu
outgoing /'aʊtgəʊɪŋ/ lagunarteko, kanporakoi
perfect match /'pɜːfekt mætʃ/ bikote ezin egokiago
personality /pɜːsə'nælətɪ/ nortasun
petite /pə'tiːt/ ñimiño, txiki
play a role /pleɪ ə 'rəʊl/ -en rola jokatu
possibility /pɒsə'bɪlətɪ/ aukera
possible /'pɒsəbl/ litekeena
practical /'præktɪkl/ praktiko
practice /'præktɪs/ jardute
relationship /rɪ'leɪʃnʃɪp/ harreman
relative /'relətɪv/ senide, familiarteko
research /rɪ'sɜːtʃ/ ikerketa
reservation /rezə'veɪʃn/ erreserba
reserve /rɪ'zɜːv/ erreserbatu
selfish /'selfɪʃ/ berekoi
self-centred /self'sentəd/ egozentriko
sensible /'sensəbl/ zuhur, burutsu
serious /'sɪəriəs/ serio
shy /ʃaɪ/ lotsati
single /'sɪŋl/ ezkongabe
slim /slɪm/ argal, lirain
spark /spɑːk/ txinparta
